

CARITASEN KANPAINA

Caritasen jardunaldia: «Zaindu, eskutik heldu. Cultiva cuidados».

2023.eko MARTXOAREN 26a

**GARIZUMAKO 5. DOMEKA
(A)**

Liturgia lagungarriak

Atarikoak:

- ✚ Lagungarri honeek liturgiarako talde eragilearen esku iztea komeni da.
- ✚ Lagungarriak aurrerapenez prestatu doguz. Ez ahaztu, kanpainan egiten danean Jainkoaren herriaren otoitzean sartzea egoki dan gertaerak izan daitezakela.
- ✚ Ezinbestekoa da liturgia lagungarriekin batera bialtzen doguzan materialak irakurtea kanpainaren senaz jabetzeko.

SARRERAKO OHARRA

Anai-arrebok: Garizuma aldiko bosgarren domekan gagoz. Gaurko ospakizunean, Lazaroren biztueraren pasarte ardatz, biziaz berba egingo jaku eta bizia eta berbizkundea bizitzera deituko. Jesus heriotza baino indartsuagoa da; bizia emonez, eta ugari emon be, heltzen da bere bizitzaren azkenera.

Izan be, Kristo biztuera eta bizia da, bizi ugaria eta, aldi berean, gure pekatu eta heriotzazko hilobietatik atarateko deia be.

Caritas datorkigu gaur eta zera gogoratu gura deusku: bizitza bera jasangarri izan daiten ezinesteko dan funtsezko ardatza, hau da, zaintza alde batera izten dauan bizimoduaren ondorioak larriak dirala: pobretasun handia, desbardintasuna, gizarte bazterketa, ingurumen-arazo larriak... Beraz, horren aurrean, zaintzak landu egin behar doguzala dinosku: gertukoak eta urrinekoak zaindu, pobretasunaren aurka konprometitu, gure barnekotasuna eta bizi-sena zaindu, gure ingurua zaindu, zaindu... Horra hor gaur egiten jakun proposamena, zentzu eta pozaren iturri lez.

Zutunik, abestuz ekingo deusagu ospakizunari.

CAMPAÑA DE CÁRITAS

Jornada de Cáritas: «Zaindu, eskutik heldu. Cultiva cuidados»

26 de MARZO de 2023

**DOMINGO 5 DE CUARESMA
(A)**

Subsidios litúrgicos

Notas previas:

- ✚ Conviene pasar estos subsidios por las manos del equipo animador de la liturgia.
- ✚ Los materiales se han preparado con antelación. Tened en cuenta que en la fecha de la Campaña puede haber acontecimientos que haya que incluir en la Oración Universal.
- ✚ La lectura de los materiales que acompañan a los subsidios litúrgicos es necesaria para comprender el sentido de la Campaña.

MONICIÓN INICIAL

Hermanas y hermanos: Hemos llegado al quinto domingo de Cuaresma. Toda la celebración de hoy nos va a hablar e invitar a la vida. El relato de la resurrección de Lázaro es una gran catequesis sobre la vida y la fe en la resurrección. Jesús es más fuerte que la muerte; termina su vida dando vida y vida en plenitud.

Kristo biztuerea eta bizitza betea dala adierazoten dau horrek, baina baita, pekatuaren eta heriotzaren gure hilobietatik urteteko deia be bada.

Cáritas se hace presente entre nosotros de un modo especial este domingo y nos invita a no olvidar que la intensificación de la pobreza, la desigualdad, la exclusión social, los graves problemas ambientales son consecuencias de un estilo de vida que se ha olvidado del cuidado como eje fundamental para la sostenibilidad de la propia vida. Es la invitación a cultivar cuidados: cuidar de las persona cercanas y lejanas, comprometernos contra la pobreza, cuidar nuestra interioridad y sentido vital, cuidar el mundo que nos rodea, cuidar... es la propuesta que hoy hacemos, como fuente de sentido y de alegría

Iniciemos la eucaristía unidos en el canto y puestos de pie.





SARRERAKO ABESTIA

ABADEAREN AGURRA

Jesukristo Biziaren Jaunaren grazia eta bakea zuekin.

DAMU OTOITZA

Jesus Jaunak dei egiten deusku, bihotz-barritze eta parkamenaren bitartez, heriotzatik Jainkoaren Bizira igaro gaitez. Apaltasunez, eskatu daigun gure pekatuen parkamena.

- Zure Espiritua herriaren gainera isurtzen dozu bidea egin daian eta bizi daiten. **Erruki, Jauna.**
- Gure hilobietatik, heriotzaz eta iluntasunez bustitako egoeretatik ataraten gaituzu. **Kristo, erruki.**
- Hainbeste pertsonari bizimodu duina eta benetakoa izatea galarazoten deutesen harlauzak altxatzeko dinoskuzu. **Erruki, Jauna.**

OHARRA IRAKURGAEI

Lehenengo irakurgaietan, Jainkoaren egintzaren ahalmenean uste osoa izan behar dogula dino Ezequiel profetak. Harek bere espiritua isuriko dau eta herria bizira, bere lurrera bueltatuko dau. Egun ha, kreazino barriaren antzekoa izango da.

Bigarren irakurgaietan, Paulo apostoluak haragia eta espiritua gizon-emakumeengan eragina daben alderdi bi lez bereizten ditu haragia eta espiritua. Haragian bizitzea, giza pentsaeraren arabera bizitzea da; espirituan bizitzea, Jainkoaren indar salbatzailearen eragina onartzea.

JAUNGOIKOAREN HERRIAREN OTOITZA

Apaltasunez, gizadi osoaren beharrianak aurkeztuko deusaguz Biziaren Jainkoari.

1. Eleizaren alde. Jakinarazo daiala hitzez eta egitez, Jainkoak gura dauan eta eskaintzen deuskun bizia. **Eskatu deiogun Jaunari.**

CANTO DE ENTRADA

SALUDO DEL PRESIDENTE

La gracia y la paz de Jesucristo, el Señor de la Vida, estén con todos vosotros.

ACTO PENITENCIAL

El Señor Jesús, a través de la conversión y el perdón, nos llama a pasar de la muerte a la Vida de Dios. Con sencillez y humildad, pidamos perdón por nuestros pecados.

- Tú que infundes tu Espíritu en tu pueblo para que camine y viva: **Señor, ten piedad.**
- Tú que nos haces salir de nuestros sepulcros, de nuestras situaciones de muerte y oscuridad: **Cristo, ten piedad.**
- Tú que nos invitas a levantar las losas que impiden una vida auténtica a tantos seres humanos: **Señor, ten piedad**

MONICIÓN a las LECTURAS

En la primera lectura, el profeta Ezequiel afirma que es necesario esperar en el poder de la acción de Dios, que infundirá su espíritu y devolverá al pueblo a la vida y a su tierra. Aquel día será como una nueva creación.

En la segunda lectura, el apóstol Pablo distingue carne y espíritu como dos dimensiones que actúan en la persona humana. Vivir en la carne es vivir según la mentalidad humana; vivir en el espíritu es dejarse llevar por la fuerza salvadora de Dios.

ORACIÓN UNIVERSAL

Con actitud humilde le abrimos el corazón al Dios de la Vida y le presentamos las necesidades de toda la humanidad.

1. Para que la Iglesia transmita, con sus gestos y palabras, la vida que Dios nos ofrece y desea. **Roguemos al Señor / Eskatu deiogun Jaunari.**



2. Agintarien alde. Guztion onerako dan eta gizon-emakumeen esanetara dagoan bestelako eredua proposatzen dabena ekonomia solidarioaren metodoak garatu daitezkan. **Eskatu deiogun Jaunari.**
3. Caritasen alde. Etenbarik eskatu deigula gure bizimodu eta kontsumoan aldaketa txiki eta esanguratsuak egitea, legamiaren antzera, eraldaketa handiagoen sustatzaile izan daitezkan. **Eskatu deiogun Jaunari.**
4. Gu guztion alde. Erreinuaren zeinu bizi izan gaitezkan eta bizia eta bakea zabaldu daiguzkan inguruan. **Eskatu deiogun Jaunari.**

Aita bizi-emoilea, begiratu errukiz gaur heriotzaren ilunpetan bizi garanoi eta, bizia dakarren zure Espirituaren eraginez, barritu eta aldatu gure bizitzak. **Jesukristo gure Jaunaren bitartez.**

OHARRA DIRUA BATU AURRETIK

Gaur batu daiten dirua Eleizbarrutiko Caritasentzat izango da. Diru horren onuradunen izenean, eskerririk asko eskuzabaltasunez jokatzegaitik.

JAUNARTZE OSTEKO ISILTASUNEAN

Jainko ahalguztiduna,
mundu osoan eta izakirik txikiengan zagozana.

Dan guztia zeure samurtasunaz inguratzen dozana,
isuri gure gainera zure maitasunaren indarra, bizia eta edertasuna zaindu daiguzkan.

Bete gaizuz bakeaz, anai-arreba lez bizi gaitezkan inor kaltetu barik.

Behartsuen Jainkoa, lagundu eiguzu zure begietara hain baliagarri diran mundu honetako baztertu eta ahaztuak askatzen.

Sendatu gure bizitzak, munduaren babesle izan gaitezkan eta ez harrapakari, edertasuna erein daigun eta ez kutsadura eta suntsiketara.

Ikutu behartsuen eta lurraren kontura bakarrik irabaziak bilatzen dabezanen bihotzak.

2. los pueblos se empeñen en organizar la economía de forma que no produzca una realidad de exclusión social y desigualdad muy grandes, dejando de garantizar los derechos fundamentales de las personas y de los pueblos. **Roguemos al Señor / Eskatu deiogun Jaunari.**
3. Para que Cáritas no deje de invitar a reflexionar sobre pequeños pero significativos cambios que podemos hacer en nuestro estilo de vida y de consumo, que van a ir produciendo poco a poco, como levadura, transformaciones mayores. **Roguemos al Señor / Eskatu deiogun Jaunari.**
4. Para que nosotros seamos signos vivos del Reino, comuniquemos vida y paz en nuestro entorno. **Roguemos al Señor / Eskatu deiogun Jaunari.**

Padre y autor de la vida, mira compasivo a quienes hoy vivimos en sombras de muerte y, por la acción vivificadora de tu Espíritu, renueva y transforma nuestras vidas. **Por Jesucristo, nuestro Señor.**

MOTIVACIÓN A LA COLECTA

La colecta de hoy será destinada a Cáritas Diocesana. En nombre de quienes se han de beneficiar de ella, gracias a todos por vuestra generosidad

EN EL SILENCIO DESPUÉS DE LA COMUNIÓN

Dios omnipotente,
que estás presente en todo el universo y en la más pequeña de tus criaturas.

Tú, que rodeas con tu ternura todo lo que existe,
derrama en nosotros la fuerza de tu amor para que cuidemos la vida y la belleza.

Inúndanos de paz, para que vivamos como hermanos y hermanas sin dañar a nadie.

Dios de los pobres, ayúdanos a rescatar a los abandonados y olvidados de esta tierra que tanto valen a tus ojos.

Sana nuestras vidas, para que seamos protectores del mundo y no depredadores,
para que sembremos hermosura y no contaminación y destrucción.

Toca los corazones de los que buscan solo beneficios a costa de los pobres y de la tierra.

Ezagutu daigula gauza bakotxaren balioa, begietsi daigula miresmenez, zure argi infiniturako bidean izaki guztiakaz bat eginda gagozala autortu daigula.

Eskerrik asko gugaz zagozalako egunez egun. Adore emon, arren, zuzentasun, maitasun eta bakearen aldeko borrokan.

Frantzisko Aita Santua

Enséñanos a descubrir el valor de cada cosa, a contemplar admirados, a reconocer que estamos profundamente unidos con todas las criaturas en nuestro camino hacia tu luz infinita.

Gracias porque estás con nosotros todos los días. Aliéntanos, por favor, en nuestra lucha por la justicia, el amor y la paz.

Papa Francisco

> Zaindu, eskutik heldu
Cultiva cuidados



"Pozik ikusten dot gertuko gauzetan jarduten dozuena, kimuak zainduz eta, aldi berean, zuhaiztia babestuz"
Frantzisko Aita Santua

"Veo con alegría que trabajáis en lo cercano, cuidando los brotes y a la vez, protegiendo la arboleda"
Papa Francisco

 caritasbi.org

> Zaindu, eskutik heldu
Cultiva cuidados



"Pozik ikusten dot gertuko gauzetan jarduten dozuena, kimuak zainduz eta, aldi berean, zuhaiztia babestuz"
Frantzisko Aita Santua

"Veo con alegría que trabajáis en lo cercano, cuidando los brotes y a la vez, protegiendo la arboleda"
Papa Francisco

 caritasbi.org

